

V. LOMEÑA FACHADAS Irungo Maratoi Erdia + 10K

ARAUDIA

AURKIBIDEA

[1. Artikulua- Informazio orokorra](#)

[2. Artikulua- Parte hartzeko baldintzak](#)

[3. Artikulua- Gehieneko denbora, erbiak eta irteera](#)

[4. Artikulua- Izen-Emateak](#)

[5. Artikulua- Dorsalak eta Korrikalariaren poltsa](#)

[6. Artikulua- Zirkuitua](#)

[7. Artikulua- Hornidura puntuak](#)

[8. Artikulua- Dutxa, arroparen zaintza eta aparkaleku zerbitzuak](#)

[9. Artikulua- Mediku-laguntza](#)

[10. Artikulua- Sailkapenak eta sariak](#)

[11. Artikulua- Deskalifikazio-arrazoiak](#)

[12. Artikulua- Parte-hartzaileen eskubideak](#)

[13. Artikulua- Parte-hartzaileen aseguruak](#)

[14. Artikulua- Beste gogoeta batzuk](#)

[15. Artikulua- Irudi-eskubideak eta datuen laguntza](#)

[16. Artikulua- Informazio grafikoa](#)

1. ARTIKULUA- INFORMAZIO OROKORRA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, Irungo Udalaren laguntzarekin, **Irun + 10K Maratoi erdiaren** bosgarren edizioa antolatuko du, 2023ko otsailaren 26ko igande goizean. Bi lasterketen irteera aldi berean izango da eta parte hartzaileak Irunen zehar ibiliko dira, 10 kilometroko lehen itzuli bat osatuz (10 Km-ko lasterketaren helmuga) eta jarraian 11,0975 Km-ko bigarren itzuli batekin bukatuz (lehenengo itzuliaren berdina + gehigarri bat).

Irteera, **2023ko otsailaren 26an, igandea, goizeko 10:00etan** izango da **Kolon pasealekuan** dagoen irteera-puntutik. Helmuga, **San Juan** plazan izango da, Irungo udaletxearen aurrean.

2. ARTIKULUA- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duenak parte hartu ahal izango du, kategoria, sexu, genero edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez. Maratoi erdian parte hartu ahal izateko gutxienezko adina, lasterketaren egunean 16 urte beteta izatea izango da eta 14 urtekoa 10 kilometroko lasterketan parte hartzeko.

Parte-hartzea **maratoi erdian 900 parte-hartzailerak** eta **10 kilometrokoan 600 parte-hartzailerak** mugatuta izango da.

Parte hartzaile bakoitzak bere erantzukizun osoz parte hartuko du lasterketan eta irteera-lerroan mota honetako probei aurre egiteko behar den maila fisikoarekin aurkeztu beharko da.

3. ARTIKULUA- GEHIENEO DENBORA, LASTERKETAKO ERBIAK ETA IRTEERAREN ANTOLAKETA

Bi proben irteera goizeko 10:00etan izango da, maratoi erdia 2h30eko gehieneko denboran burutu beharko da, 1h10, 10 kilometroko lasterketaren kasuan.

IGAROTZE-DENBORAK

5en Km.	35min
10en Km.	1h10
15en Km.	1h45
20en Km.	2h20
Helmuga	2h30

Korrikalari guztiak igarotze-denborak nahitaez bete beharko dituzte. Bestela, antolakuntzak dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu lasterketaren iraupena alde aurretik planifikatutakoa baino luzeagoa izan ez dadin.

ERBIAK LASTERKETAN

Antolakuntzak erritmo ezberdinetan ibiliko diren erbiak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, hauek 1h20 eta 2h00 arteko helburuak lor ditzaten. Erbiak kolore desberdinetako banderatzok eramango dituzte gainean, non eramango duten erritmo idatzita egongo da, parte-hartzaileentzat erreferentzia izango dena.














Erritmo hauetarako erbiak egongo dira:

- 1h20 (Erdi Maratoia) / 38min (10K)	3:45eko erritmoa, banderatzok gorria
- 1h25 / 40min	4:00eko erritmoa, banderatzok laranja
- 1h30 / 42:30 min	4:15eko erritmoa, banderatzok beltza
- 1h35 / 45min	4:30eko erritmoa, banderatzok horia
- 1h40 / 47:30min	4:45eko erritmoa, banderatzok arrosa
- 1h45 / 50min	5:00eko erritmoa, banderatzok berdea
- 1h50 / 52min	5:15eko erritmoa, banderatzok urdina
- 2h00 / 57min	5:45eko erritmoa, banderatzok morea

IRTEERAREN ANTOLAKETA

Eramango duten erritmoaren arabera, erbiak beren irteera eremuan kokatuko dira. Parte-hartzaileei berriz, izena ematerakoan baliatuko denboraren arabera, irteera-eremu bat esleituko zaie. Antolakuntzak beretzat gordetzen du emandako denborak egiaztatzeko eskubidea eta korrikalari bakoitza egokien iruditzen zaion eremuan jartzeko. Parte hartzaileak dagokien eremura beranduenez proba hasi baino 5 minutu lehenago sartu beharko dira.

5 irteera-eremu izango dira:

EREMUA	DENBORA	ERBIAK
	< 1h20/38min	
	1h20/38 min eta 1h30/42min30	1h20/38min eta 1h25/40min  
	1h30/42min30 eta 1h40/47min30 artean	1h30/42min30 eta 1h35/45min  
	1h40/47min30 eta 1h50/52min artean	1h40/47min30 eta 1h45/50min  
	> 1h50/52min	1h50/52min eta 2h00/57min  

4. ARTIKULUA- IZEN-EMATEAK

Izen-emateak www.mediamaratonirun.com webgunean, **2022ko azaroaren 15ean** irekiko dira eta epea **2023ko otsailak 24an, 20:00etan** amaituko da. Otsailaren 19a baino lehen izena ematen dutenentzat, dortsalean bere izena ageriko da. Izen-emateak edozein kasutan gehieneko parte-hartzaile kopurura iritsi bezain laster itxiko dira (900, 21K eta 600, 10K). **Probaren egunean bertan, irteera gunean izena emateko aukerarik ez da izango.**

Aurrez aurre izena eman nahi dutenek Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan egin ahal izango dute, Leandro Agirretxe plazako 1 zenbakian, 2. solairuko 8en bulegoan, 9:00etatik 14:00etara. ([Palmera Montero Gunea](#)).

Itzulketaren politika: Azkenean parte hartu ezingo dutenek izen ematearen titulartasuna aldatu ahal izango dute. Titulartasun aldaketa ekitaldiaren webgunean prestatutako [Parte-hartzailearen Gune Pribatuan](#), otsailaren 19ko 23:59ak arte egin ahal izango da. Izen ematearen zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Hori bai, maratoi erdian izena emandakoak, bere dortsala 10K-ko lasterketarako aldatzea eskatu ahal izango dute. Aldaketa horrek ez du inolako kosturik izango, baina aldi berean, tarifen arteko aldea balego ez litzateke itzuliko.

Izena ematearen prezioa honela aldatuko da:

IZENA EMATEKO EPEA	MARATOI ERDIA	10K
Lehen 100 izen emateak	18€	14€
300en izen ematera arte edo 2022/12/31 baino lehen	22€	
Kuota Orokorra	26€	17€
Azken asteko izen emateak, 2023/02/20tik aurrera	30€	20€

Maratoi erdiko korrikalari leialenentzat deskontuak egongo dira (4 edizio edo 3 edizio amaitu dutenentzat), 10 parte-hartzaile edo gehiagoko taldeentzako, probaren egunean 27 urtetik beherakoentzat eta gurasoen seme-alabentzat eta baita 2023ko martxoaren 12an Donostian ospatuko den udaberriko lasterketarako promozioak izango dira. Lasterketarako izen-emate bat hirugarren bati oparitzeko aukera izango da ere [ekitaldiaren webgunean](#) aukera hori aukeratzuz.

5. ARTIKULUA- DORTSALAK ETA KORRIKALARIAREN POLTSA

Dortsala eta korrikalariaren [Deportes Gonzalez](#) ([Ondarribi'ko karrika s/n, 20301 Irun](#)) honako egun eta ordutegitan:

OSTEGUNA OTSAILAK 23 16:00 – 20:00
OSTIRALA OTSAILAK 24 10:00 – 13:00
OSTIRALA OTSAILAK 24 DE 16:00 – 20:00
LARUNBATA OTSAILAK 25: 10.00 - 13.00
LARUNBATA OTSAILAK 25: 16.00 - 20.00

Dortsala jasotzeko, izena ematearen egiaztagiria, bai formatu digitalean, bai paperean inprimatuta aurkeztu behar da. Egiaztagiri hori izena ematerakoan baliatutako posta elektronikoan jasoko du parte hartzaileak, nahiz eta [Izen-emateak Egiaztatzeko Eremuan](#) uneoro bertsio eguneratua deskargatzeko aukera izan.

Izena ematearen egiaztagirian QR kode bat agertzen da. Dortsala jasotzerakoan kode hau eskaneatuko da. Dagokion egiaztagiria aurkeztuz, beste parte hartzaile baten dortsala eta poltsa jaso ahal izango dira. Izena ematearen egiaztagiria aurkezten ez bada, parte hartzailearen dortsala eta poltsa, NANA edo argazkidun nortasun-agiri bat aurkeztu ondoren, dortsalaren jatorrizko titularrari bakarrik emango zaio.

Aldez aurretik jasotzen ez diren dortsal guztiak zuzenean irteera-gunean, 8:00etatik 9:30era lasterketaren egunean jasoko dira. Irteera-gunearen kokapena honako esteka honetan ikus daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>.

Korrikalariaren poltsak dortsal txip-a (Otsailak 20a baino lehen izena-ematen dutenentzat dortsalean bere izena ageriko da), kateorrazak, lasterketaren kamiseta teknikoak, laguntzaileen hainbat produktu eta eskaintza, lasterketaren eta zerbitzuen informazioa, kontsignarako zinta itsasgarria, etab. izango ditu barne.

6. ARTIKULUA- ZIRKUITUA

Zirkuitua trafikoari itxita egongo da eta lasterketa jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzak izendatutakoak izango dira. Hauek behar bezala identifikatuko dira. Ibilbideak bi itzuli izango ditu, lehenengoa 10 kilometrokoa eta bigarrena 11,0975 kilometrokoa.

Zirkuituaren eta gune logistikoei buruzko informazio guztia esteka honetan aurki daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>

Ibilbide osoan zehar bai puntu kilometrikoak, bai zerbitzu desberdinak, hala nola hornidura-postuak, komunak, zerbitzu medikoak, dortsalak jasotzeko puntua, kontsigna-zerbitzua, dutxak, etab. argi eta garbi seinalizatuta egongo dira. Nolanahi ere, lasterketaren ibilbidea eta zerbitzu guztien kokapena honako esteka honetan aldeztatik kontsultatzea gomendatzen da: <https://bit.ly/Medialrun>

7. ARTIKULUA- HORNIDURA PUNTUAK

4.5, 7.0, 10.7, 15.6 eta 18.1 kilometroetan gutxi gorabehera, 5 hornidura-puntu jarriko dira parte hartzaileen eskura. Era berean, helmugan hainbat postu egongo dira non parte-hartzaile guztiak hornidura oso bat jasotzeko aukera izango dute.

Hurrengo estekan beste informazio askoren artean, hornidura-postuen kokapen zehatza ikus daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>

8. ARTIKULUA-DUTXA, ARROPA ZAINZA ETA APARKALEKU ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak helmugatik gertu kakatua dagoen [Uranzu pilotalekukoak](#) izango dira.

Arropa uzteko zerbitzua Uranzu pilotalekuan, non dutxak eta aldagelak kokatuak dauden, egongo da. Motxilak goizeko 9:00etan biltzen hasiko dira. Kontsigna-puntuaren kokapen zehatza esteka honetan aurki daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>

San Juan plazan karpa bat jarriko da, lasterketan sarituak suertatzen direnak aldatu eta sari-banaketa egin arte itxaron ahal izateko. Kokapena esteka honetan <https://bit.ly/Medialrun>

Dorsalari atxikita, motxila identifikatzeko dortsaletik bereizi beharko den zinta itsasgarri bat egongo da. Motxiletan balio-elementuak bai eta manipulazioan hautsi daitezkeen elementu hauskorak ez uztea eskatzen da.

Autoz joan behar direnentzat, Artaleku kiroldegiko (plaza oso mugatuak) doako aparkalekua erabiltzea gomendatzen da. Era berean, irteeraren eta helmugaren inguruan, Kolon pasealekuko, San Juan plazako eta Pio XII.aren plazako ordainpeko parkinak daude. Hauen kokapena honako esteka honetan ikus daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>

9. ARTIKULUA- MEDIKU-LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku-laguntza egongo da. Helmugan ere laguntza medikoa egongo da. Antolatzaileek probaren aurretik korrikalariari azterketa mediko bat egitea gomendatzen die. Edonola ere parte-hartzaile guztiak kirol-jardueratik eratorritako arriskua onartu beharko dut. Medikuz-zerbitzu ofizialak lasterketatik parte hartzaile bat erretiratzeko ahalmena izango du, bere ustez, korrika jarraitzeko baldintza fisiko edo psikikoetan betetzen ez badira. Medikuz-zerbitzuen kokapen zehatza honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://bit.ly/Medialrun>

10. ARTIKULUA- SAILKAPENAK ETA SARIAK

Probaren egunean, hurrengo estekan edo lasterketaren webgunetik, www.mediamaratonirun.com, emaitzak zuzenean jarraitu ahal izango dira: <https://rebrand.ly/MediaIrunLive>.

Sailkapenean agertu ahal izateko, dortsala maratoi erdikoa edo 10K-koa den hartuko da kontuan. Dagokien distantzia osatzeko bitarteko alfonbra guztietatik igaro beharko dute korrikalariak. Derrigorrezkoa izango da [3.en artikuluan](#) ageri diren bitarteko eta helmugako denborak betetzea.

Sailkapenak lasterketa bukatzeko erabilitako **denbora garbiaren** arabera egingo dira. Hau da, parte-hartzailea irteerako alfonbratik igarotzen den momentutik, helmugako alfonbra igarotzeko behar duen denbora neurtuko da.

SAILKAPENAK

10K eta 21K-ko lasterketan bereiztutako sailkapenak egongo dira. 10K-ko lasterketak gizon eta emakumeentzat sailkapen orokorra izango ditu. Maratoi erdiak aldiz, gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen orokorrak gain maila ezberdinetarako sailkapenak izango ditu:

MAILA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
23 URTEZ AZPIKOA	2001/01/01etik 2007/02/26ra	2001/01/01etik 2007/02/26ra
MASTER 45 +	1978/02/26 baino lehen jaiotakoak	1978/02/26 baino lehen jaiotakoak

SARIAK

MARATOI ERDIA: Lehen hamarrek eta 23 urtez azpiko eta Master 45+ mailetakoko lehen sailkatuek jasoko dituzte sariak.

1. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia
2. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia
3. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia
- 4-10 Gizonezkoak/ Emakumezkoak Trofeoa

Maratoi erdian, maila ezberdinetan sariak jasotzeko hautagai diren korrikalariak, sariak metatzeko aukera izango dute.

Maratoi erdia amaitzea lortzen duten korrikalari guztiek domina bat jasoko dute.

10K: 10 kilometroko lasterketaren lehen hirurek jasoko dute garaikurra.

1. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia
2. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia
3. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + Oparia

11. ARTIKULUA- DESKALIFIKAZIO-ARRAZOIAK

Irteeran eta 5 kilometrotik behin helmugaraino denbora kontrolak egongo dira. Parte hartzaile guztiak nahitaez kontrol puntu hauek igaro beharko dituzte.

Honako hauek lasterketatik automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenek.
- Dorsalaren publizitatea aldatu edo ezkututzen dutenek.
- Beste parte-hartzaile bati esleitutako dortsala edota txipa eramaten dutenek.
- Edizio honetako jatorrizko dortsala eramaten ez dutenentzat.
- Dorsalarik gabe helmugan sartzen direnentzat.
- Epailen, osasun-langileen edo antolakuntzako kideen jarraibideei kasurik egiten ez dutenek.

- Era berean, gogoratu arazten da zirkuituaren barruan ibilgailu motordunak edo antolakuntzatik kanpoko bizikletak erabat debekatuta daudela.

Deskalkifikatutako parte-hartzaileek sarituak izateko aukera guztiak automatikoki galduko dituzte.

12. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

Ofizialki izena emanda dauden eta lasterketaren dortsal ofizial eta originalaren bidez hala dela egiaztatzen duten parte-hartzaileek, bularrean jarrita eraman beharko dute, tolestu, aldatu edo manipulatu gabe, eta une oro izango dute eskubidea lasterketako edozein zerbitzuez gozatzeko, bai ibilbidean zehar, bai helmugan, hala nola hornidura, osasun-laguntza eta abar.

Antolakuntzak ez die inolako arretarik edo zerbitzurik emango aurreko baldintza betetzen ez duten pertsoneri edo lasterketan dortsalik gabe edo horrekin faltsututa parte hartzen dutenei, eta lasterketatik kanporatuko ditu, haien presentzia hautemateko unean eskura dituen baliabideen bidez.

13. ARTIKULUA- PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Erakundeak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du, indarrean dagoen legediaren arabera. Ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiek, halaber, istripuen aurkako aseguru-poliza bat izango dute. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara, zuhurtziagabekeria, zabarkeria, araudiko legeak eta artikulua ez betetzea, bai eta lasterketa egiten den lekura eta handik egiten diren joan-etorrietan gertatzen direnak ere.

14. ARTIKULUA- BESTE GOGOETA BATZUK

Antolakuntzatik kanpoko ezinbesteko arrazoiengatik (ekaitzak, lurrikarak, eraso terroristak, pandemiak, etab.) lasterketa bertan behera gelditzen bada, izen-emateen dirua ez da itzuliko. Kaltetuei hurrengo edizioan izena emateko baldintza onuragarriak eskainiko zaizkie.

Antolatzaileek aurreikusitako ibilbidea segurtasun-arrazoiengatik uneoro alda dezake.

15. ARTIKULUA- IRUDI-ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGAPENAK

Parte hartzaile guztiek, izen-emateagatik, araudi hau ezagutzen eta onartzen dutela adierazten dute, eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak informatikoki eta kirol-, informazio-, sustapen- edo merkataritza-izaerako helburu eskusiboarekin bere datu pertsonalak, baita argazkien, bideoen eta abarren bidez probaren barruan duen irudia ere, trata ditzan.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, parte-hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea baliatu ahal izango du, haren edukia partzialki edo osorik zuzentzeko edo ezerezteko. Eskubide hori baliatzeko, idatziz eskatu beharko dio Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialari. (Ramón Iribarren kalea 4, behea, 20304 Irun).

Erakundeak beretzat gordetzen du erregelamendu honetan aldaketaren bat egiteko eskubidea, egoki irizten badio, eta jendaurrean jakinarazi beharko du, bai probaren webgunean, bai izena emateko plataforman.

Araudi honetan aurreikusi ez den guztia RFEA-ren eta World Athletics-en (Iraganean IAAF) 2023 denboraldirako Lehiaketa Arau Orokorren arabera arautuko da.

16. ARTIKULUA- INFORMAZIO GRAFIKOA

Ibilbideari, erantsitako guneei eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua, honako esteka honetan eskuragarri dago: <https://bit.ly/Medialrun>